



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

La Ritirata antzinako musika talde prestigiotsuak eta Pierre Hantaik J.S. Bachen ‘Conciertos para 2, 3 y 4 claves’ interpretatuko dute Arriaga Antzokian

- Taldea proiekturako berariaz elkartu diren lau klabezinistek osatzen dute, eta Josetxu Obregón biolontxelista eta zuzendari bilbotarra izango dute buru, ‘Conciertos para 2, 3 y 4 claves de J.S. Bach’ aurkezteko.
- Martxoaren 24an, ostegunean, 19:30ean egingo den kontzertua aukera paregabea izango da elkarrekin ikusi ahal izango baititugu, batetik, Pierre Hantaï frantses klabezinista handia eta, bestetik, hiru espainiar klabezinista gailen: Diego Ares, Ignacio Prego eta Daniel Oyarzabal.

Bilbo, 2022ko martxoaren 21a. – Ostegun honetan, martxoaren 24an, 19:30etik aurrera, maila goreneko hitzordu musikala izango dugu Arriaga Antzokian, **La Ritirata**ren eskutik. Taldea, nazioartean, antzinako musika talderik garrantzitsuenetako bat da.

Josetxu Obregón biolontxelista eta zuzendari bilbotarra buru duen taldeak J.S. Bachen ‘Conciertos para 2, 3 y 4 claves de J.S. Bach’ aurkeztuko du. Hitzorduan espainiar estatuko klabezinista onenetako hiru egongo dira, **Diego Ares, Ignacio Prego** eta **Daniel Oyarzabal**, agertokia musika tresna horren mitoarekin partekatuz, **Pierre Hantaï** frantses musikari ospetsuarekin, hain zuzen.

Arriaga Antzokira iritsiko den bira hau mugarri garrantzitsua da talde prestigiotsuarentzat, zeinak 14 urteko ibilbidea baitu eta 230 kontzertutik gora eskaini baititu, 4 kontinenteko 22 herrialdetan. Lehen aldia da La Ritiratak bi klabezin baino gehiagorentzako errepertorioa eskaintzen duela. Bachen musika bikain hori ez da maiz interpretatzen, oso zaila baita agertoki berean afinatutako lau klabezin izatea. Gogoan izan behar da Bachek 1730eko hamarkadan konposatu zituela klabezinentzako bere kontzertuak, eta sarritan aurreko lanetatik abiatuta moldatu zituela, Leipzigekeo Collegium Musicumeko jardueretarako. La Ritiratak emanaldi honetan eskainiko duena askorentzako kontzertuak izango dira; hau da, bi, hiru eta lau klabezinentzat idatzitakoak (azken hori Vivaldiren L’estro armonicoren kontzertu bikainenetako baten bertsioa).

La Ritirata buruz

La Ritirata European, Amerikan, Asian eta Ekialde Hurbilean ospe handia duten jaialdi eta aretoetan aritu da, baita Mexikon, Txilen, Kolonbian, Costa Rican, Bolivian, Perun edo Ekuadorren ere, hainbat bira amerikarrekin. Taldeak musika klasikoaren kategorian Madrilgo Erkidegoko Kulturaren 2017ko saria jaso zuen, Josetxu

Obregónek antzinako musika ikertzeko eta zabaltzeko egindako lanagatik; RNEren Ojo Crítico 2013 saria jaso zuen musika klasikoaren modalitatean —lehen aldiz eman zioten antzinako musika talde bati—, eta 5 GEMA (Antzinako Musikako Talde Espainiarren Elkartea) sari ditu. Duela gutxi, FestClásicak (Musika Klasikoko Jaialdien Espainiako Elkarreak) emandako ‘Sello FestClásica 2021’ saria lortu du eta, horri esker, 14 kontzertuko bira bat eskainiko du Espainia osoan datorren udan. Gainera, Glossa zigiluarekin egindako grabazioek arrakasta handia izan dute kritikarien artean.

Jose txu Obregóni buruz

Jose txu Obregón sasoi bikainean dago; izan ere, ostegunean Arriagara ekarriko duen La Ritiratarekin egiten ari den biraz gain, duela gutxi argitaratu baitu ‘CelloEvolution’ (Glossa), bakarlari gisa egindako lehen diskoa eta biolontxeloaren bilakaerari buruzko bidaia musikala, hasieratik Bachen suiteekin amaitu arte doana.

Jose txu Obregón La Ritirataren zuzendaria eta sortzailea da. Biolontxelista bilbotarra Madrilgo Goi Mailako Errege Musika Kontserbatorioko irakaslea izan da 15 urtez eta nazioarteko 13 sari baino gehiago jaso ditu. Mundu osoan zehar eskaini ditu kontzertuak (Europako 24 herrialdetan, Hego Amerikako nazio ugarian, Estatu Batuetan, Japonian, Txinan), Europako talde garrantzitsuetan egon da eta nazioarteko artista handiekin partekatu du eszenatokia. Normalean jotzen dituen musika tresnak Sebastian Klotzen 1740ko biolontxelo originala, XIX. mende hasierako tiroldar biolontxelo eta 5 hariko piccolo biolontxelo dira.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 10 eta 21 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus